



**GB**

## **GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE**

### **5- KANALAK**

Proiektu baten hedapena handia eta azkarra izateko eta honen helburuak lortzeko, honek bere bezeroekiko zein beste akordioetara heltzeko guztiz beharrezkoak dira kanalak. Gure enpresak erabiliko zituen salmenta kanalak bi izango litzateke: zuzenekoak eta online kanalak.

Kanal zuzenari beharrezko garrantzia emango genioke, hau egiteko nahikoa hedatutakoan honetan espezializatutako lan esparru bat sortuz: Hedapen Gestiorako Lantaldea. Honen bidez, orain arte esandako elkarte eta aliantzen gaineko lana askoz produktiboagoa eta enpresarekiko eraginkorragoa izango zela uste dugu, enpresaren beharren banaketa egokiak gure lana erraztuz. Beraz, talde honen helburua enpresaren ideia eta produktua ahalik eta gehien zabaltzea izango litzateke, beste enpresa edota gobernu batzuekin akordioak eginez eta baita sindikatu edota bestelako edozein talderekin lan eginez ere. Bestalde, lan hau aurrez-aurrekoa izanez gure bezeroekiko zein kideekiko konfiantza handituz eta erlazioak sendotuz.





GB

Bigarren kanala, esan bezala, online kanala izango zen. Kanal honi behar duen garrantzia emanaz gero, gure enpresak orain hedatzen ari den Interneten mundu honetan indarra hartuko zuela uste dugu eta, horretarako, bi modutan egingo genuke. Lehen bezala, honetarako ere lantalde bat osatuko genuke, teknologia berrietan espezializatutako pertsonekin, alde batetik sare sozialen bidez gure enpresa eta marka zabaltzeko eta, bestalde, Interneteko [www.protectourfuture.com](http://www.protectourfuture.com) webgunearen bidez. Azken honetan, gure enpresari buruzko eta honen zerbitzu zein prezioei buruzko informazio formala emango genuke eta, sareetan aldiz, bideo laburren bidez era on batean promozionatu.

